

SAGARDO BERRIA IREKI DA PROBAKETA GARAIA

Ohitura zaharrak, betiko kezkek

Sagardotegiak moda-modan jarri direnetik sagardogintzak ere bizi du nolabaiteko loraldia. Berez nekazaritzari ostalaritzari baino estuago lotzen zaion sagardogintza ohitura zaharra da; sagardogileen kezkek, berriz, betikoak.


MIREN IMAZ
ERREDAKZIOA

Nonahi ireki dira azken urte hauetan sagardotegiak, baita hurbileneko sagarrondoak ehunka kilometrotara duten hiri handietan ere. Ika-mikarrik ere piztu du moda berrik horrek. Ezin da ordea ukatu negutik udaberri bitarteko hilabeteetan aparteko fenomeno sozial bilakatzen direla sagardoaren inguruko erritoak, nahiz eta horietako asko azken orduko asmakizunak izan...

Sagardoari ura botatzen zionak isun eta zigor larriak jasaten zituen antzina

Erritoak ezezik mitoak ere badaude sagardoaren inguruan. Euskalduntasunaren ikurrak apaintzen duen edaria mundu zabalera Euskal Herriko arrantzaleek eraman zutela ere esan izan da, nahiz eta zaila izan hori frogatzea eta nahiko erraza alderantzizko baieztapenari eustea. Arrantzale euskaldunen bidaien aurrekoak dira Testamentu Zaharra, Alejandro Handiaren espedizioak eta kronikagile erromatar zein grekoen testuak, eta horietan guztietan ager-

KALITATEA.
Atzoko eta gaurko sagardogileen kezka nagusia.



ZABALIK

tzen dira sagarrak ematen duen ur gozoaren inguruko aipamenak.

Dokumentuei zurrumurru eta istorioei baino jaramon gehiago egiten bazaie ezin antzinako euskaldunei eman sagardoa asmatzearen ohera... Euskaldunak eta asturiarrak izan ziren, ordea, Iberiar penintsulan sagarrondoaren eta haren fruituen esplotazio masiboari hasiera eman ziotenak.

Euskal Herriko sagardogintzari buruzko lehenengo idatzizko aipamenak IX. mendekoak dira. Handik aurrera ez dago lege, foru edo arau nagusirik sagardogintzaren garrantzi sozial eta ekonomikoa aipatzen ez duenik.

Betiko kezkek

Herrietako ordenantzetan zein eragin orokorragoa duten arautan sagardogintzari egiten zaizkion aipamenetan bi kezka nagusi nabarmentzen dira: sagardoaren kalitatea eta horren garrantzi ekonomikoaren kontrola. XIV. mendean Seguran onartu zituzten Udal Ordenantzek, esate baterako, herrikoei ematen zieten bakarrik sagardoa zein ardoa egin eta gordetzeko baimena. Herrian gordeta zegoena bukatu arte ezin zen kanpikorik erosi. Hamabi lagunez osatutako behatzaile taldea ere bazuten edari horien kalitatea bermatzeko eta salmenta prezioak finkatzeko.

Sagardiak eta sagardoa ondare amankomun eta garrantzitsuak ziren. Ona izan behar zuen gai-

nera sagardoak etekin ekonomiko txukuna eman zezan, bazegoen eta konpetentziarik.

Ondare hori babesteko Erdi Aroko arauen batzuek heriotz zigorra ezartzen zioten kupelen bat txikitzen zuenari; erbestea bost sagarrondo kaltetzen zituenari eta isun handiak sagardoari ura botatzen zion edonori.

Lekuan lekuko produkzioa zaintzea ere kezka larria zen. Seguran bezala, herri gehienetan finkatzen zen bertako sagarrak eta sagardoa bukatu behar zirela beste nonbait egindakoa erosi aurretik. 1329an

Tolosako Kontzejuak erabakitakoa arabera, herrian sagarrak aurkitzen ez zuenak bazuen kanpoan erosteko baimenik, baina etxean kontsumitzeko soilik, ez hirugarren bati saltzeko. Donostian ere zorrotzak ziren neurriak, eta bertako portutik Donostian hazitako sagarrez ekoiztutako sagardoa bakarrik irten zitekeen. Donostiako sagardogileek arauak eskuan hartuta itxi zituzten konpetentziari merkataritzarako ateak. Bertakoekin ere ez ziran gozoak. Hernanin zeuzkan sagardietan hartutako fruituez egindako bi kupel sagardorekin harrapatu zuten Luis de Alzega sagardogile donostiarra XVI. men-

dean. Nahiz eta bereak izan sagarrak, inolako kupidarik gabe isuri zuten kalean bi kupelen edukia. Hernanin bertan ere legeak erabat babesten zituen ekoizleak. Zozketa bidez emandako ordenan saltzen zuten sagardoa sagardogile hernaniarrek. Lehenengo suertatutakoak dena saldu arte ezin zuen

bigarrenak kupelik ireki, eta horrena noiz bukatuko zain egon behar zuen hirugarrenak...

XVI. mendetik aurrera Ameriketatik iritsitako landare berriek lekua kendu zioten sagardiari. Gipuzkoak eutsi zion gehienbat aurretik Euskal Herri osoan heda-

tuta zegoen sagardogintzari baina Gipuzkoan ere atzera egin zuen XIX. mendean sagardoari ezarri zitzaizkion zerga izugarrien eraginez. XX. mendean zehar uzten joan zen sagardogintza, 60.ko hamarkadan edari horren inguruko zaletasuna eta bertako sagarraren inguruko interes berpizten hasi zen arte. Interesa moda bilakatu zen ondoren; sagardogintzarekin zerikusituzten ez zuten sagardotegiak ekarri dituen moda. Mende berriko erronka sagardogintza berera itzularaztea da, ohitura zaharra berriztatzea. Kezkak, betikoak: kalitatea eta bertako produkzioa babestea.

Heriotza zigorra ezartzen zioten Erdi Aroan kupelen bat puskatzen zuenari



ZABALIK

SAGARDOTEGIAK. Argazkian ageri dena Madrilan dago.